

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

• Zein da zure bezeroa?

Aurrez esan bezala gure bezeroak edozein adinetako jendeak dira, patineteak mobilitate handiagoa eskeintzen duelako. Bezero gehienak gure ustez 12 eta 30 urteko gazteak izango dira, trebetasuna behar delako eta beste garraio biderik izan ezean beharrezkoak izan litezke.

Horiez gain, zaharrentzako gehienbat triziklo elektriko batzuk egingo genituzke nahiz eta kantitate txikiagoan izan.

Oraingoz, elbarritu elkarte batekin kontratu bat dugu iadanik sinatuta, "ASOCIACION SOCIEDAD VASCA DE MINUSVALIDOS BIDAIDEAK" deitzen da, Bilbon dago kokatuta eta triziklo eta patinete elektrikoak egingo ditugu, baina pixka bat moldatuak izango dira, bakoitza duen egoerari egokituta.



Elkarte honekin adostu dugu elbarrituentzako patinete espezial batzuk egitera eta beraiek gure enpresaren izena zabalduko dute bertatik. Bizkaian kokatuta dagoenez bezero berriak erakarri genitzake.

• Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gehienbat kotxea ez dutenak dira, ekonomikoki ezin dutenak edo elbarrituak. Jendeak bere aisirako ere erabil ditzakete, gehienbat gazteek kolore desberdinetako diseinuekin. Helbarrituak bere ezinen arabera desberdinak dira eta mobilitatea hobetzeko asmoekin egindakoak dira.